



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2019ko irailaren 26a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:10

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden.

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi.

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2019ko uztailaren 4ko ezohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udal Aurrekontu Propioaren 5/2019 zenbakidun kreditua aldatzeko espediente, kreditua transferitzeko modalitatean.



- 3.- Onartzea, egoki bada, Udal Aurrekontu Propioaren 6/2019 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Ordenantza Fiskalen eta bere eranskinen aldaketa, eragina 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.
- 5.- Onartzea, egoki bada, 2020 urterako auto-taxi zerbitzuaren tarifa urbanoak.
- 6.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, udal-garbitzaile lanpostuei buruz.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Udaleko administrari-laguntzaileen sailkapen-taldea eta ordainsari-maila aldatzea.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Udaleko diruzaintza-lanpostuaren sailkapen-taldea eta ordainsari-maila aldatzea.
- 9.- Onartzea, egoki bada, Obra eta Zerbitzuetako udal-brigadako arduradunaren lanpostu bat hornitzeko oinarriak.
- 10.- Onartzea, egoki bada, elektrizitateko espezialitatea duen lehen mailako ofizial balioaniztun lanpostu bat hornitzeko oinarriak.
- 11.- Onartzea, egoki bada, peoi espezialista balioaniztun lanpostu bat hornitzeko oinarriak.
- 12.- Onartzea, egoki bada, garbitzaile-lanpostu bat hornitzeko oinarriak.
- 13.- Onartzea, egoki bada, udal-kanpinerako peoi espezialista balioaniztun lanpostu bat hornitzeko oinarriak.
- 14.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2019KO UZTAILAREN 4KO EZOHICO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, zirriborroari inork inolako oharrik egiten ez dionez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA 2019ko uztailaren 4ko ezohiko bilkuraren akta.



2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL AURREKONTU PROPIOAREN 5/2019 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 5/2019 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 34.346,35 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko irailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2019ko aurrekontuari dagokion 5/2019 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 34.346,35 euroko zenbatekoa du

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailatza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL AURREKONTU PROPIOAREN 6/2019 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 6/2019 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 290.176,91 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko irailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2019ko aurrekontuari dagokion 6/2019 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 290.176,91 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailatza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BERE ERANSKINEN ALDAKETA, ERAGINA 2020KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2019ko irailaren 20ko Ogasuna eta Pertsonala batzorde informatzailean diktaminatu da, segidan zehazten den eran:

1.- ONARTZEA Izaera Urbanoko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagozkion karga-tasak **IGOTZEA**, hurrenez hurren, era honetara:



- ‰ 4,023, zona industrial edo tertziarioetan kokatuta dauden ondasun urbanoetarako.
- ‰ 1,943, gainerako ondasun higiezinetarako.

Familia ugarienezako hobariak indarrean segituko dute.

Errekarguak.

Ondasun higiezinak etxebizitza erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–, Oriko Udalak ‰50eko errenergua eskatzen jarraituko du zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargua zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie; zergaren une berean sortuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Errekargu hau aplikatzearen ondorioetarako, Katastroaren arabera etxebizitza gisa erabiltzekoak diren lokalak ere etxebizitza erabilera duten ondasun higiezinak hartuko dira. Etxebizitzaren eranskinak ere sartuko dira, erregistroan finka bakar gisa ageri badira. Ondorio horietarako ere, presuntzioa egingo da etxebizitza erabilerako ondasun higiezin bat ohiko egoitza dela baldin eta, zergaren sortzapen egunean, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatua badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela.

Errekarguaren salbuespenak:

- 1.- Zergaren hobariren bat dutenak.
- 2.- Udaleko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan alta emandako jarduerekin lotutakoak.
- 3.- Zergaren sortzapenaren aurreko urtean 9 hilabete baino gehiagorik alokatuta egon diren etxebizitzak (alokatuta bakarrik; ez dira sartzen erabilera-lagapenak). Honako dokumentazioa aurkeztu beharko da, salbuespena aplikatzeko:
 - Salbuespena aplikatzeko eskaria.
 - Alokairu-kontratua, behar bezala datatu eta sinatuta. Kontratu horretan agertu behar du higiezinak etxebizitza-xedea edo erabilera izango duela.
 - Alokairua kobratu izana justifikatzen duten agiriak, zergaren sortzapenaren aurreko urteari dagozkionak.

Gipuzkoako Foru Ogasunari alokairu-kontratu horien berri emango zaio.



4.- Zahar-egoitzatan erroldatutako pertsonen titulartasuneko etxebizitzak. Salbuespen hau aplikatuko zaio, bakar-bakarrik egoitzan sartu aurretik pertsona horren ohiko etxebizitza zenari.

5.- Herentzia baten parte diren etxebizitzak, titularra hil eta bi urteko epean.

6.- Zergaren sortzapenaren aurreko urteko azaroan edo abenduan erositako etxeak, non, nahiz eta urtarrilaren 1ean inor ez egon erroldatuta, erroldatzeko tramitea egin den zergaren sortzapenaren urteko lehen hiruhilekoan.

7.- Legez aurri-egoeran deklaraturako eraikinetan kokaturako etxebizitzak.

8.- Hiri katastroaren erregistroan bi finka independente osatzen dituzten etxebizitzak, baina etxebizitza bakar modura erabiltzen direnak. Zirkunstantzia horien balorazioko txostena udal zerbitzu tekniko eskudunek egingo dute.

9.- Lurzoru urbanizaezinean eta lurzoru urbanizagarrian kokaturako etxebizitzak.

10.- Urbanistikoki antolamenduz kanpokotzat kalifikaturako eraikinetan dauden etxebizitzak.

11.- Ohiko etxebizitza ez diren etxebizitzak, baldin eta urteko gutxienez 300 kWh-ko energia-kontsumoa frogatzen badute.

Zergaren sortzapenaren aurreko urtean izandako elektrizitate edo gas kontsumoen fakturak aurkeztuta frogatuko da zirkunstantzia hori.

12.- Zaintza pertsonalak behar dituzten mendeko pertsonen jabetzako etxebizitzak, baldin mendeko pertsona hori bera zaintzeaz arduratzen den familiarraren etxean bizi eta erroldatuta badago. Zaintza pertsonalen beharra mendekotasun-balorazio bidez frogatuko da. Salbuespen hau aplikatzeko beharrezkoa izango da utzi den etxebizitza hori mendeko pertsonaren ohiko etxebizitza izatea, familiarraren etxebizitzara joan aurretik.

Onartzen da Nekazaritza izaerako ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikatzen zaion karga-tasa %1,10ean **MANTENTZEA**.

2.- Onartzen da **EZ IGOTZEA** Orioko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako hainbat ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritako gutxieneko kuoten gehikuntzarako koefiziente bakarra.

3.- Izaera urbanoko lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga-tasa eta urteko portzentajeak **EZ IGOTZEA** onartzen da.

Hobariak mantendu egiten dira.



4.- Onartzen da %1,5 **IGOTZEA** trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergari aplikagarri zaizkion tarifak, honako kasuetan bakarrik: A) atala (turismoak) eta F) atala (bestelakoak) 250etik 500era, 500etik 1.000 bitarteko eta 1000tik gorako zentimetro kubikotako motozikletak. Bestalde, bere horretan mantentzen dira zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hobariak.

5.- Onartzen da **EZ IGOTZEA** eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari aplikagarri zaizkion zerga-tasak.

Obra nagusietan, hondakinen kudeaketa era egokian egiten dela bermatzeko, obra egiteko ordaindu beharreko zergaren %50eko abala jartzea eskatuko da, eta obra bukaerarekin batera, hondakinen kudeaketa era egokian egiten dela erakusten duten ziurtagiriak aurkeztuta, abala itzuliko da.

Indarrean segituko dute zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hobari guztiek.

6.- Onartzen da % 1,5 **IGOTZEA**, orokorrean, ondoren zerrendatzen diren tasen tarifatan:

- Ibilgailuak sartzeari espaloian barrena eta bide publikoa erreserbatzea modu eskusiboan aparkatzeko, ibilgailuak geratzeko eta edozein motatako salgaien zama-lanerako.
- Udal erabilera publikoko lurrak okupatzeari, mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko beste elementuak erabiliz, irabazteko asmoa dagoenean, indarrean eutsiz ezarritako hobariei.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuak udalerrietako kaleetan aparkatzeari, horretarako erabakitako zonen barruan eta muga jakin batzuekin.

Aplikatu beharreko tarifak honako hauek izango dira:

- Hondartzako aparkalekua eta inguruak (turismoak):

Ekainaren 1etik irailaren 13ra, biak barne, astelehenetik igandera, 10:00etatik 20:00 etara, 1,35 €/ordu edo zatiko, jarraian azaltzen denaren arabera:

Orduak	Euroak
1	1,35 €
2	2,70 €
3	4,00 €
4	5,00 €
5	6,00 €
6	7,00 €



7	8,00 €
8	9,00 €
9	10,00 €
10	11,00 €

- Bide publikoko lurzorua, lurpearen eta hegalkinen erabilera pribatua eta aprobetxamendu berezia.

Herri bideak.

Baimena eskatzen duenak, bideok erabiltzen hasi aurretik, alde batetik tasa ordaindu eta bestetik fidantza bat jarri beharko du, bideok erabiltzeagatik eragin litzaketen kalteengatik.

Tasaren eta fidantzaren zenbatekoa jarraian dagoen taulak ezartzen du:

m^3	<i>m. (luze) / (distan) €uro</i>	500	1000	1500	2000	2500
100	1x	2000	2500	3000	3500	4000
200	1,4	2800	3500	4200	4900	5600
300	1,8	3600	4500	5400	6300	7200
400	2,2	4400	5500	6600	7700	8800
500	2,6	5200	6500	7800	9100	10400
600	3	6000	7500	9000	10500	12000
700	3,4	6800	8500	10200	11900	13600
800	3,8	7600	9500	11400	13300	15200
900	4,2	8400	10500	12600	14700	16800
1000	4,6	9200	11500	13800	16100	18400
1100	5	10000	12500	15000	17500	20000



m^3	<i>m. (luze) / (distan)</i> Euro	500	1000	1500	2000	2500
1200	5,4	10800	13500	16200	18900	21600
1300	5,8	11600	14500	17400	20300	23200
1400	6,2	12400	15500	18600	21700	24800
1500	6,6	13200	16500	19800	23100	26400
1600	7	14000	17500	21000	24500	28000
1700	7,4	14800	18500	22200	25900	29600
1800	7,8	15600	19500	23400	27300	31200
1900	8,2	16400	20500	24600	28700	32800
2000	8,6	17200	21500	25800	30100	34400

Fidantzaren zenbatekoa garraiatuko den m^3 bolumenaren eta erabiliko den bide zatiaren luzeraren arabera zehaztuko da.

Tasaren zenbatekoa ezarriko den fidantzaren %10a izango da.

Fidantza dirutan edo abal bankario bitartez jarri daiteke.

- Kutxazain automatikoak eta bide publikotik irismena duten salmenta-makinak instalatzeko eta funtzionamenduan edukitzeko tasa arautzen duen ordenantza.

Tasa honen zerga-kuota hau **IGOTZEA** onartzen da:

- a) Fatxadetan finantza erakundeek edo gordailu-erakundeek kutxazain automatikoak instalatu eta funtzionamenduan edukitzeagatik: 400 euro urteko.
 - b) Berdin mantentzen da.
- Udal pilotalekuaren erabilera eta Antilla hondartzako kabinen erabilera.



Udal pilotalekuaren erabilerari buruz aplikatu beharreko tarifak berdin mantentzen dira.

Aldiz, Antillako hondartzako kabinen erabilerari buruz, honako tarifak aplikatzea onartzen da:

- Aulkiak, paipoak eta eguzkitako aterkiak: 0,60 €/eguneko; 2,50 €/asteko, 7,50 €/hileko eta 20 €/denboraldiko.
- Etzaulkiak eta surf-aulak: 0,80 €/eguneko; 4,50 €/asteko, 12,50 €/hileko eta 30€/denboraldiko.
- Orioko Udal Musika eskolan egindako ikasketak.

2019-2020 ikasturtean aplikatu beharreko tarifak 2019ko uztailaren 11ko 132 zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak dira.

- Udal kanpinaren erabilera.

Aplikatu beharreko tarifak %1,5ean **IGOTZEA** onartzen da.

- Kultur etxeko bulegoen erabilera.

Onartzen da **IGOTZEA**, bakar-bakarrik, 1. tarifari dagozkion atalak, zentzu honetan:

1. tarifa

Diru irabazirik gabeko elkarteek Kultur Etxeko bulegoen erabileragatik ez dute inolako tarifarik ordainduko.

Merkataritza elkarteek, diru irabaziak dituzten elkarte edota pertsona fisikoek Kultur etxeko bulegoen erabileragatik ondorengo tarifak ordainduko dituzte:

a) Areto nagusiaren erabileragatik:

Egun 1 erabiltzeagatik.....25,00 euro

Egun 1 baino gehiago.....18,00 euro / eguneko

b) Bilera gela erabiltzeagatik:

Egun 1 erabiltzeagatik.....18,00 euro

Egun 1 baino gehiago.....16,00 euro / eguneko



c) Gelak erabiltzeagatik:

Egun 1 erabiltzeagatik.....18,00 euro

Egun 1 baino gehiago.....16,00 euro

- Udaletxeko teilatupeko gelaren erabilera.

Aplikatu beharreko tarifak honako hauek dira:

Egun bat erabiltzeagatik: 25 €

Egun bat baino gehiago, eguneko: 18 €.

- Arraunetxe arraun eta piraguismoko teknifikazio zentroaren erabilera.

1. Tarifa atalari dagozkion tarifak berdin mantentzen dira.

Hipoxia aretoa erabiltzeagatik, dagokion tarifa aplikatzea **ONARTZEN** da.

2. Tarifa eta 3. Tarifa atalei dagozkien tarifei buruz, Begi Bistan enpresak egindako proposamena **ONARTZEN** da.

Orioko Udalak Begi Bistan enpresari eskatuko dio berak proposatutako tarifei hobariak aplikatzea Mutiozabal ontziolaren erabileragatik aplikatu beharreko tarifen gainean.

- Katea (KTA) eraikineko lokalen erabilera. Aplikatu beharreko tarifak honako hauek dira:

- Egun bat erabiltzeagatik: 25 €

- Egun bat baino gehiago erabiltzeagatik, eguneko: 18 €.

- Salatxo udal aretoaren erabilera. Aplikatu beharreko tarifak honako hauek dira:

- Egun bat erabiltzeagatik: 25 €

- Egun bat baino gehiago erabiltzeagatik, eguneko: 18 €.

7.- Ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatzen zaizkien tarifak **EZ IGOTZEA** onartzen da:

- Udal erabilera publikoko lurretan zangak eta hobiak irekitzea.
- Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea (ezarritako hobariak indarrean



segituko dute).

- Indar elektrikoa, ura, gasa edo beste edozein fluido garraiatzeko linea, hoditeri eta galeriak (bere horretan mantentzea diktaminatzen da, batere igo gabe).
- Bide publikoan kioskoak instalatzea.
- Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta-guneak, ikuskizunak, atrakzioak eta horrelakoak instalatzea (kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinema-filmaketak barne). Horretarako ezarrita dauden hobariak indarrean segituko dute.

Aipamen berezia egitea onartzen da telesail edota antzeko aktibitate baten grabaketa edo filmaketari buruz. Hau da, tasa horrez gain, edozein motako kalte edo hondatzeak sortuko balira, horren ondorioz sortutako gastuak erreklamatuko dira.

Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira, herriko sortzaileak, irabazi-asmotik gabeko elkarte eta entitateak (Eusko Jaurlaritzako edo Orioko udaleko elkarteak erregistroan izena emanda daudenak) eta interes kultural berezia dutenak.

- Auto-taxien eta errentako gainerako ibilgailuen lizentziak eta baimenak ematea.
- Udal administrazioak edo udal agintariak norbaiten eskariz emandako agiriak.
- Lurzoruari eta antolamendu urbanoari buruzko legeek exijitutako lizentzia urbanistikoak ematea.
- Udal hilerrian zerbitzuak eta kontzesioak ematea.

Aipamen hau sartzea **ONARTZEN** da:

Kontzesiodunek eskatzen badute, eta egoeraren arabera, hileta eskubideen aurre itzulketan onartzeko askatasun osoa izango du Udalak, hartu zuen garaian ordaindutakoa itzuliko dio Udalak erabili duen denboraren kenketa eginda; gehienekoa ordaindu zuenaren %50a izango da.

- Ibilgailuak geraraztea eta bide publikotik erretiratzea.
- Orioko Eguneko Zentroan ile-apaindegi zerbitzuak ematea.
- Jarduera-lizentzia ematea eta jardueraren eta instalazioaren funtzionamenduari buruzko ikuskarpenak egitea.



- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea.
- Udal kiroldegia erabilera.
- Udal kiroldegiko aparkalekuen erabilera.
- Udalbatzarraren aretoaren erabilera.
- Azurza etxeko tutoretzapeko apartamentuen erabilera.
- Udal futbol/sofbol zelaia erabiltzea.
- Iturriaga jauregian kokatutako Euskal Herriko Done Jakue Bidearen interpretazio-zentroaren erabilera.

1. Tarifa: KENTZEA ONARTZEN da.

2. Tarifa:

Aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

	Euro/aleko
Kamiseten salmenta (helduak).....	12,00
Kamiseten salmenta (haurrak).....	9,00
Oharrak hartzeko koaderno salmenta.....	5,00
Urogallo kuadernoaren salmenta. Iparreko bidearen gida.....	6,50
USB giltzen salmenta.....	7,00
Orio-Oteiza katiluen salmenta.....	4,00
Orioko argazkidun kuaderno handiaren salmenta.....	2,80
Orioko argazkidun kuaderno txikiaren salmenta.....	1,80

- Teniseko, paddle-ko eta squash-eko udal pisten erabilera.
2. Tarifa atalari aplikatu beharreko tarifak honako hauek izango dira:
- Teniseko eta squash-eko pista erabiltzeagatik: 4,80 € /orduko + sarrera.



Paddle-ko pista erabiltzeagatik: 9,50 € /orduko + sarrera.

- Txu-txu trenaren erabilera eta publizitate-iragarkiak bertan jartzea.

Udal txu-txu trenaren alokairua **KENTZEA ONARTZEN** da.

- Udalaren txosnaren erabilera.

Muntatu eta desmuntatzeagatik aplikatu beharreko tarifa **KENTZEA ONARTZEN** da.

Era berean, ondorengoa adierazten da: 150 euroko fidantza eskatuko da, eta edozein motako kalte edo hondatzeak sortuko balira, horren ondorioz sortutako gastuak erreklamatuko dira.

- Udalaren oholtzaren erabilera.

Muntatu eta desmuntatzeagatik aplikatu beharreko tarifa **KENTZEA ONARTZEN** da.

Era berean, ondorengoa adierazten da: 150 euroko fidantza eskatuko da, eta edozein motako kalte edo hondatzeak sortuko balira, horren ondorioz sortutako gastuak erreklamatuko dira.

- Mendibeltz futbol/softbol zelaiaaren azpiko garajeen erabilera.
- Udal parrillen erabilera.
- Udal ludotekaren erabilera.
- Orioko Arraunetxe zentroaren areto nagusiaren erabilera.

EKITALDIAK	
5 ordu baino gutxiago	100 €/orduko
5 ordu baino gehiago	90 €/orduko
10 ordu baino gehiago	60 €/orduko

SALBUESPENAK: Herriko elkarte bakoitzak doako bi erabilera egin ahalko ditu urtean (100 pertsonatik gorako asistentzia duen ekitaldia antolatzen badu. Hortik beherako beste beharrak kultur etxe edo Salatxo aretora bideratuko dira). Bi erabilera horietatik aurrera, herriko elkarteen erabilerak prezio arruntaren %50ean kobratuko dira.

- Orioko ostalaritza establezimenduen soinu neurketaren erabilera.



Soinu neurketak eskatzen direnean, lan horren kostua, salatuaren edo salatzailearen kargu izango da. Salatuari egindako neurketako balioak zuzenak badira, salatzailearen kontura izango da neurketa, eta salatuaren kargu, neurketan salatzaileak arrazoia duela zehazten bada.

8.- Kontuan hartuta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera mankomunatu egin zela zaborrak eta hondakin solido urbanoak biltzeko zerbitzua, aplikatu beharreko tarifak Urola Kostako Udal Elkarteko Batzar Nagusiak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako onartzen dituenak izango dira.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko irailaren 20an emandako diktamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Ordenantza Fiskalen Aldaketari eta bere eranskinei, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminoetan.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduari 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2020 URTERAKO AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOAK.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Taxiaren Gipuzkoako Elkarteak eskaria aurkeztu du, 2020an Orioko auto-taxi zerbitzuaren tarifak % 0,8 igotzea proposatuz. Honez gain, ustiapenaren kostuen azterketa aurkeztu dute.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko irailaren 13an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]:

ONARTZEA % 0,8 igotzea Urola Kosta bailarako auto-taxi zerbitzuaren tarifak, Taxiaren Gipuzkoako Elkarteak proposatutakoa aintzakotzat hartuz. Tarifa berriak 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera sartuko dira indarrean.

Beraz, 2020ko tarifak honako hauek izango dira:

TARIFA URBANOAK 2020			
PROPOSAMENA	GUTXIENeko TARIFA	KILOMETRO BAKOITZEKO	ITXOITEN PASATAKO ORDUA
1. TARIFA*	5,4779	1,1690	22,3252
2. TARIFA**	6,5208	1,8645	36,4415

Gutxieneko tarifaren barruan sartuta daude ibilbideko 1,5 kilometro edo itxoiten pasatako 5 minutu.

(*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara.

(**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. 2. tarifa aplikatuko da, baita ere, igandetan, larunbatetan eta jaiegunetan, eta abenduaren 24an eta 31n, 07:00etatik 22:00etara.

6.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-GARBITZAILE LANPOSTUEI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko irailaren 13an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Gurutze Larrañaga Ramiro udal-garbitzailea, Haurreskolako eraikinaren eta Dikeko komunaren garbiketaz arduratzea, 2019ko irailaren 23tik



aurrera, kontuan izanda Milagros Makazaga Eceiza udal-garbitzaileak erretiroa hartuko duela 2019ko irailaren 21ean.

2.- ONARTZEA Francisco Javier Otxandorena Insausti udal-garbitzaileari lanaldia handitzea: %72,5etik %100era pasatuko da. Ondorioz, Zaragueta Eskolaren garbiketaz gain Abaromendiko eta tren-geltokiko komunak eta Iturriaga Jauregia garbitzeaz arduratuko da 2019ko irailaren 23tik aurrera.

3.- ONARTZEA Deialdia egitea Udaleko 2019ko enplegu publikoaren eskaintzan jasota geratuko den garbitzaile-lanpostu bat hornitzeko lehiaketa-oposizio bidez; lanpostuaren lanaldi-erregimena %100ekoa izango da

Aipatutako plaza hornitu bitartean, Orioko Udalak langile bat kontratatuko du lan-erregimenean eta denboraldiko izaerarekin. Horretarako, 2018ko oposizioetan osatutako garbitzaileen lan-poltsatik ordezkoko pertsona bat aukeratu eta kontratatuko du.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALEKO ADMINISTRARI-LAGUNTZAILEEN SAILKAPEN-TALDEA ETA ORDAINSARI-MAILA ALDATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko irailaren 13an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Udaleko administrari-laguntzaileen sailkapen-taldearen eta ordainsari-mailaren aldaketa: C2 sailkapen-taldetik C1 sailkapen-taldera (administraria) pasatuko dira eta ordainsari-maila Udalhitz lan-hitzarmenaren 12a izango da.

Hartutako erabakiak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALEKO DIRUZAIN-TZA-LANPOSTUAREN SAILKAPEN-TALDEA ETA ORDAINSARI-MAILA ALDATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko irailaren 13an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



ONARTZEA udaleko diruzaintza-lanpostuaren sailkapen-taldearen eta ordainsari-mailaren aldaketa: A2 sailkapen taldetik A1 sailkapen taldera (goi mailako teknikaria) pasatuko da eta ordainsari-maila Udalhitz lan-hitzarmenaren 24a izango da.

Hartutako erabakiak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, OBRA ETA ZERBITZUETAKO UDAL-BRIGADAKO ARDURADUNAREN LANPOSTU BAT HORNITZEKO OINARRIAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko irailaren 13an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Obra eta Zerbitzuetako udal-brigadako arduradunaren lanpostu bat hornitzeko oinarriak, xehetasun hauekin:

- Eskabideak behar bezala bete ondoren, Orioko Udaleko erregistro orokorrean aurkeztuko dira deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 20 egun naturaleko epean.
- Prebentzio-baliabideen ikastaroa edukitzea (gutxienez, 50 ordu) hautagaien baldintzetatik kendu eta lehiaketaldira pasatuko da merezimendu moduan eta, edozein kasutan, praktikaldiko 6 hilabeteen lortu beharko du praktikatako funtzionarioak aipatutako prebentzio-baliabideen ikastaroa.

10.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ELEKTRIZITATEKO ESPEZIALITATEA DUEN LEHEN MAILAKO OFIZIAL BALIOANIZTUN LANPOSTU BAT HORNITZEKO OINARRIAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko irailaren 13an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA elektrizitateko espezialitatea duen lehen mailako ofizial balioaniztun lanpostu bat hornitzeko oinarriak, xehetasun hauekin:



- Eskabideak behar bezala bete ondoren, Orioko Udaleko erregistro orokorrean aurkeztuko dira deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 20 egun naturaleko epean.
- Eskatuko diren titulazioak, honako hauek dira: erdi mailako teknikaria lanbide heziketan eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren titulazioaren arabera gaikuntzen aitortzen-taulan jasotako behetentsioko instalatzaile gisa gaitzeko eskatzen den gutxieneko titulazioa izatea.
- Aipatutako titulazioa, goi mailako teknikaria lanbide heziketan, lehiaketaldian sartzea, merezimendu moduan.

11.- ONARTZEA, EGOKI BADA, PEOI ESPEZIALISTA BALIOANIZTUN LANPOSTU BAT HORNITZEKO OINARRIAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko irailaren 13an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA peoi espezialista balioaniztun lanpostu bat hornitzeko oinarriak xehetasun honekin: Eskabideak behar bezala bete ondoren, Orioko Udaleko erregistro orokorrean aurkeztuko dira deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 20 egun naturaleko epean.

12.- ONARTZEA, EGOKI BADA, GARBITZAILE-LANPOSTU BAT HORNITZEKO OINARRIAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko irailaren 13an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA garbitzaile lanpostu bat hornitzeko oinarriak, xehetasun hauekin:

- Eskabideak behar bezala bete ondoren, Orioko Udaleko erregistro orokorrean aurkeztuko dira deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 20 egun naturaleko epean.



- Lanpostuaren lanaldi-erregimena %100ekoa izango da.

13.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-KANPINERAKO PEOI ESPEZIALISTA BALIOANIZTUN LANPOSTU BAT HORNITZEKO OINARRIAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2019ko irailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Udal kanpinerako peoi espezialista balioaniztun lanpostu bat hornitzeko oinarriak xehetasun honekin: Lanpostuaren eginbehar nagusiak ondorengo hauek izango dira, besteak beste: tresna txikiak erabiltzea: konpresoreak, mailu pneumatikoak, dardaragailuak, zulagailuak, motozerrak, setoak mozteko makinak, belarra mozteko makinak, sasi-garbitzeko makina...

14.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Eskariak eta galderak ez ziren izan.

Bilkurari amaiera eman aurretik, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du jadanik pasa direla ehun egun legealdi honi hasiera eman zitzaionetik eta azpimarratzekoa dela, alde batetik, gaurtik aurrera herritarrek eta interesdunek aukera izatea udalbatzarreko bilkurak etxetik ikusteko eta, bestetik, eskertzekoa dela Ordenantza Fiskalen eta bere eranskinen aldaketa jadanik irailean bertan onartzea eta gainera aho batez.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,